

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregian, 1992ko maiatzaren 29an egin dute euskaltzain osoek hileroko euren batzarrea. Goizeko hamarretan bildu dira, J. Haritschelhar euskaltzainburua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, M. Azkarate, P. Charritton, X. Diharce, A. Irigoien, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, I. Sarasola, L. Villasante eta P. Zabaleta, euskaltzainak. J.L. Lizundia idazkariorde urgazlea.

Zegozkien gaietan egon dira, X. Kintana, M. Zalbide eta A. Zata-rain, urgazleak.

J.L. Davant eta J. San Martin jaunek ezin etorria adierazi dute. Apirileko batzar-agiria onartu da.

Miren Azkarate euskaltzain berriari ongietorria emanez hasi du euskaltzainburuak batzarrea.

J.J.Zearretak aita galdu du eta doluminak eman zaizkio. Zuzendaritza osoa eta beste zenbait euskaltzain hileta elizkizunetan egon ziren Larrean.

Jorge Errezuko euskaltzain ohorezkoaren hil berria eman da gero, F. Ondarrak egingo duelarik arratsaldeko batzarrean zenduaren merezimenduen aipamena.

Bizkaiko Foru Aldundiak E. Erkiaga omendu du *Bizkaiko Seme Bikain* izendatuz. Ospakizun horretan ere egon zen Zuzendaritza. Karmelo Etxenagusia urgazlea mintzatu zen omenduaren goratarrea eginez, eta geroztik istripu bat izan du Begoñako parrokoak.

Goizeko bilkuren zatiketa

Aurreko batzarrean euskaltzainburuak egindako proposamenaren ildotik, euskaltzain osoek hileroko egin ohi duten batzarrearen prozedura eztabaidatu da. Lehenik, X. Kintanak idazkariari bidalitako gutun luzea irakurri du Haritschelhar jaunak. Funtsean, urgazleen eskubideak betearaztea eskatzen du.

Era askotako arrazoiak labur bilduz, Arautegia egin zenetik gauzak asko aldatu direla ikusten da: Hamabi euskaltzain eta zortzi bat urgazle besterik ez zen hasieran, dio Villasantek. Gai garrantzitsu asko ditu eskuartean Euskaltzaindiak lehen ez zituenak eta euskaltzain osoei bakarrik dagozkienak. Profesionaltasunaren aldetik, gramatikari gutxi zegoen lehen, gaur doktoreak dira horretan ari direnak eta orduan ez bezalako informazioarekin, esan du P. Altunak.

P. Zabaletari arazuko iritzia eskatu zaio. Euskaltzaindiari dagokiola arazoa argitzea, esan du lehenik. Une honetan praxia ere kontuan izanik, behin-behineko iteera honako hau izan daiteke: euskaltzain ohorezko eta urgazleei batzar-agiriak bidali, gramatika eta literatur gaiak erabiltzen diren batzarretara deitu eta hitza ematea. Euskaltzain osoek barnegai orokorrak erabakitzeke egiten dituzten bileretan berauek bakarrik dutenez gero hitza eta boza, osoen barrengo batzarrea egingo dute. Izan ere, hori da, aspaldian, Euskaltzaindiaren jokabidea.

Horrela onartu da.

Eskuartekoak

Maiatzaren 31an Durangon egitekoa den ikastolen aldeko *Ibilaldia 92* iragarritz, hartu da gutun bat. J.A. Martija jauna joango da Euskaltzaindiaren izenean.

Bizkaiko Irakaslegoaren Unibertsitate-Eskolak ordezkaria eskatzen du bizkaierazko ziurta agiria banatuko duen epaimahairako. J.L. Goikoetxea izendatu da eta berak ezinean G. Aurrekoetxea joango da.

Euskararen irakaskuntzarako erabiltzen den Martuteneko "Villa María del Pilar" Euskaltzaindiarentzat izango dela jakinarazi da, egunen batean horretarako baliatuko ez balitz. Emaileari esker ona agertuko zaio, eta legezizkoen aholkua eskatuko da gutunaren edukinaz jabetzeko.

Nafar Gobernuak burua den J.C. Alli jaunaren gutuna banatu da euskal irratiei buruz Euskaltzaindiak egindako eskariari erantzunez egina.

Nafarroako Parlamentuaren deia jaso da Iruñeko ordezkartzan, maiatzaren 27an Euskarari buruz bilduko den Batzorde Berezian parte hartzeko. Zuzendaritzak J.M. Lekuona eta J.M. Satrustegi izendatu zituen, euskaltzain buruordeak Joaterik izan ez zuelarik grebaren eraginez. Hobekuntzaren Nafarroako legea aldatzea proposatu zen euskararen egoera duintasunez bideratzeko.

Iruñeko ordezkartzan dagoen Arturo Kanpionen brontzezko burua Bilboko egoitzako batzar aretora eramatea proposatu du Nafarroako ordezkaria den J.M. Satrustegik. Orduna ospetsuaren lan katalogatua da eta egoitza berrian hobeto egongo litzateke. Ongi hartua izan da eskaintza.

J. Haritschelhar jaunak aditzera eman duenez, bigarren artikuluarri emendio bat bozkatua izan da Frantziako Legebiltzarrean, "Le français est la langue de la République", dioena. Jakinarazi du berak beste hizkuntzen eskubideak ere hor daudela.

ETB Nafarroan ikusteko antena ezartzeko eskaria J.C. Alliri zuzentzea proposatu du P. Salaburuk. Harreman zuzenez berarekin mintzatzea hobe litzatekeela esan da.

Akademi gaiak

Eguerdiko hamabietan hasi da akademi gaien eztabaida. Lexikografia ataleko idazkaria den M. Zalbide etorri da LEF batzordearen izenean. X. Kintana eta A. Zatarain Euskara Batuko batzordearen proposamenetaz interesatuak direnez, bertan egon dira.

Bait partikula kasu guztietan aditzari atxikirik idaztea proposatu du batzordeak.

Bost ohar jaso direla esan da, eta bostak proposamenaren alde. Adibideak sartu behar dira, eta horrela onartu da.

-alde/-kalde. Sei jaunek bidali dituzte idatziz euren iritziak. *Goienkalde* eta *Barrenkalde* hitzen antezko lekuizen zaharrak ere badirela esan da. Batzordearen proposamenari jarraituz, *-alde*, hitz batean idaztea onartu da: *Iparralde*, *Hegoalde* bezala. Horrek ez du esan nahi ohitura denean *aurrekalde* eta *atzekalde*-ren antzekoak ezin ebaki daitezkeenik.

-arazi/-erazi hitzari buruz, aditzari loturik idaztea proposatu du batzordeak eta horrela onartu da.

-arazi aldaera onartzea proposatu du, bestalde, Euskara Batuko batzordeak. Eztabaida sortu da, forma baten nahiz bestearen aldeko arrazoiak azalduz. Bata nahiz bestea onartzea datorren batzarrean bozkatu da, eztabaidarik gabe.

LEF batzordea

M. Zalbidek LEF batzordearen izenean, “Hitz elkartuen osaera eta idazkera” izeneko lan mardul baliotsuaren laburpena aurkeztu du. *-a* oinarritzko edo organikoak piztu du eztabaida, eta puntu hau ezik onartu da lana.

Datorren hileko batzarrean aztertuko da *-a* organikoaren arazoa.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

J. Haritschelhar
euskaltzainburua

J.M. Satrustegi
idazkaria